

# Errobi izeneko sai zuri gaztearen lehen negua pasatzea

## Afrikara joateko lehen migrazioa...

**Errobiri eraztuna eta geolokalizazio baliza\* ezarri zaizkio 2019ko uztailaren 18an, Euskal Herrian zuen habian. Agorrilaren 15ean airatu ondotik, migrazioa irailaren 10ean hasi zuen eta Espainia zeharkatu, Gibraltarrera irailaren 26an heltzeko.**

### Mauritania

Urriaren 5ean berriz agertu zen Mauritania, Sahara zeharkatu ondoan.

Han, Hodh el Gharbin egon zen (Ayoun El Atrous hiriaren ondoan). Hura Sahelen dagoen eskualdea da, prezipitazio ahulak eta irregularrak (< 300 mm) ezaugarri dituena, oihan idorrez eta belarrezko sabanez osatu landaredi barreiatua duena, non Mairu, Fula eta Soninke herriek abelazkuntza estentsiboa egiten baitute.

Eskualde berean, Assabako (Kiffa hiritik hurbil) eta Hodh el Gharbiko (Tamcheppet-etik hurbil) eremuen mugetan egon dira Humboldt (habia Ossau ibarrean duen sai heldua) eta Duero ingurutik heldu ziren beste sai batzuk, 2018-2019ko neguan.

### Mali – Senegal - Ginea

Ondotik, Errobik bere ibilbidea hegoaldera segitu zuen, Malira. Gero, Senegalgo hego-ekialde muturrean eta Gineako iparrean sartu zen eta Maliko mendebaldera itzuli, non, martxo erditsuz geroz, Baoulé ibaiaren inguruan egoten baita.

Eskualde hartan, Baoulé ibaiko Bihurguneko Parke Nazionala eta Biosferaren Erreserba bat badira; Sahel du iparrean (Mauritaniaren hegoaldearen segidan) eta Sudan-Ginea hegoaldean, bien arteko trantsizio eremua izanik.

Landaretzak (sabana arbolatsua) idortea eta laborantza jarduerak ekarri kalteak pairatzen ditu, iparraldean transhumantzia baita nagusi eta hegoaldean laborantza-artzaintza. Eskualdearen %90 erretzen da urte oroz, urri erditsutik goiti. Fauna handia biziki ttipitu da parke nazionalen eta erreserban, ihizi ilegalarengatik eta aziendaren lehiarengatik.



Errobiren bidea

### Baoulé ibaiko Bihurguneko Parke Nazionalaren bisita

Jadanik seinalatu da Duerotik heldu ziren sai zuriak Baoulé ibaiko Bihurguneko Parke Nazionalen egon zirela 2018-2019ko neguan. Gertakari hori Boundouko Erreserba Naturalean egin behaketetatik hurbildu behar da, zeina Senegal ekialdean baita, latitude berean, eta Boundoukoarekin konparatzen ahal den



Argazkia: Jean-Pierre Pompidor

ingurumenean; han, 30 sai (20 heldugabe barne) biltzen zituen elkarretaratze bat ikusi da, Falemé ibaiaren bazterrean.

Neguko lekua Sahelgo iparretik hegoaldera mugitu izana eta Errobi saia Maliko eskualde hortan luzaz egon izana lotu behar zaio landaretza sasoiaren arabera aldatzeari, hau idortzen eta urraska desagertzen ari baita, sasoi idorrean, urritik maiatzera (ondorioz, baliabide trofikoak azkarki ttipiturik), ipar-hego gradiente baten arabera. Sahara hegoaldera heltzean (agorriaren eta urriaren artean) paleartikoko migratzaileek baldintza onak aurkitzen dituzte Sahel iparreko sabanetan, eurien sasoiaren hondarrean (landare estaldura eta baliabide trofiko handienak). Gero, martxotik maiatzera, egoera anitz okertzen da, sasoi idorrena baita, beroena eta baliabidez pobreena.

Hegoalderago, denbora berean, sasoi idor laburrago baten ondotik (abendutik otsailera) sabanako suek eta eurien berriz hasteak (martxo-apirila) baliabide trofikoaren emendatze azkarra ahalbidetzen dute, zeinak harrapari anitzendako oso erakargarriak baitira (suek mugiarazi intsektu anitz, termitategien eta xinaurritegien garatzea, erreka bazterretako oihanetako olio-palmondoen fruituak...).

Nahiz eta sai zuri helduek beren itzulerako migrazioa otsail hondarrean edo martxo hastapenean egin duten, Errobik bere neguko lekua hegoaldera mugitzea eta Maliko hegomendebaldean luzaz egotea hainbat aldaketaren ondorio dira: Sahelgo eta Sudan-Gineako sabanen, hango baliabide trofikoaren, laborantza eta abere hazkuntza alorreko jardueren bilakaerenak (sabanako suak).

Europako beste harrapari migratzaile batzuk, bereziki mirotz urdinak (*Circus pygargus*) eta Naumannen belatzak (*Falco naumanni*), urritik otsailera urraska Saheldik hegoaldera lekualdatu direla ikusi da, ortoftero (haien harrapakin nagusiak) dentsitatearen ttipitzearen ondorioz, landaretzaren idortze eta desagertze progresiboarengatik.


### Sai zuri gazteak Afrikan denbora gehiago egotea

Espezie batzuen artean (harrapari batzuk, itsasoko hegaztiak, Charadriiformes ordenako hegazti batzuk...), gazteek ez dute, beren lehen negua iragan ondoko urtean, udaberriko itzulera migrazioerik egiten, eta neguko lekuan bizpahiru urtez egon daitezke.

Itzultzea gerorako uzteak migrazio baten kostu fisiologikoa eta lanjerak kentzen dizkie gazteei; sai zuri gazteen kasuan, gainera, behargabeko migrazioa litzateke, bost urteko adina aitzin ez baitira ugaltzeko on.

Iduriz, beren joan-jinak eta egonlekuak lekuko baldintzei egokitzen dizkiete, baliabide trofiko aberatsenei segi, nahiz eta Afrikako egonaldian duten ekologia eta bereziki elikadura-erregimena oraino ikertzeak diren.

(\* CRBPO, Muséum National d'Histoire Naturelle, CNRS, CEFE ikerketa programen eta Erick Kobierzyckiren eratzun ezartze programa pertsonal baten kariatara geolokalizazio baliza batez hornitua izan zen sai zuri gaztea.



Argazkia : Jean-Pierre Pompidor